

BILBON DABIL GABRIEL ARESTI IBILALDI BEREZIA



EUSKALTZALEEN BILTZARRA
Gabriel Arestiren Bilbon



2024, uztailaren 24a

***Bilgunea: goizeko 10:00etan, Oteizaren eskultura
ondoan, Bilboko udaletxearen parean (Ernesto Erkoreka plazan)**



***Goizeko 10:00etan, Ondo Etorriak Bilbora.** Oteizaren eskultura handiaren oinetan, Gabriel Arestiren etxea aurrean dugula, Bilboko

udaletxearen parean hartuko ditugu adiskide bisitariak: “**Godalet-dantza**”
poema arestiarra deklamatuz, Gabriel Arestik sortu lehenetarikoa, oihartzun
sakon ilunekoa, Maskarada zaharretan iturburu duena.

- **Godalet-dantza**

**Aitak Aizaroz bildots bat
eran zezan
Olenzaroz
aker bat
eran zezan.
Ordudanixek ezin gogo
dazaket
bildotsa,
akerraren adarrak gaberik.
Adar hoiek kiribilkatzen dira
bildotsaren buru inguruan
oinhaze egitekoz.
Zuhaitzaren adarrak hedatu nahi dute
gizonen buru gainean
babes emaitokoz.
Zertzuk dira arduragarriago:
Akerraren adarrak ote?
Zuhaitzaren adarrak ote?
Zer da guragarriago:
Bildotsa ote?
Gizona ote?**

***10:15: Bilboats ibaiontzira sarrera, modu honetan:
zerrendako ordenean:**

1. **Euskaltzaleen Biltzarra: 43 lagun**
2. **Bizkaiko AEK eta gainontzekoak: 30 lagun.**

***10:30: Ibaizabalen zehar bidaia ibaiontzian:**

- 2 ordutako nabigazioa, Getxoko Abraraino eta itzulera.

****eskifaia:**

- *Karmelo Landa, Xabier Monasterio eta Ibon Burgoa "Gabriel Aresti Kultura Elkartetik,*
- *Jon Gulu Bizkaiko AEKtik, ,*
- *Mixel Jorajuria eta adixkideak Euskaltzaleen Biltzarretik.*

ITSASALDIKO IBILBIDEA:



*****Barroeta Aldamar kalearen eta Pio Baroja plazaren parean dagoen ontziralekutik irten BILBOATS ibaiontzian eta ibaian behera abiatuko gara itsasorako bidean.**

- **GABRIEL ARESTI ETA JORGE OTEIZA PAREZ PARE BILBON:**

Udaletxearen parean elkartzen dira Bilbon bi adiskide, ezkerreko bandan **Gabriel Arestiren** jaiotetxea, eta eskuinekoan **Jorge Oteiza**, haren eskultura erraldoiaren presentzian, *Esferaren hustuketaren aldaera oboidea*.

- **Harri eta Herri** poema liburuko **Q poema** erreferentzia hartuta, Gabriel Aresti eta Jurgi Oteizaren arteko artearen funtzioaren inguruko eztabaiden aipamena.
- Bilbok badu gune bat Gabriel Aresti eta Jorge Oteiza parez pare jartzen dituen. Hauxe da gunea, Jorge Oteizaren eskultura Ibaizabalen eskuinaldean, Gabriel Arestiren etxea ezker aldean, aurrez aurre.
- Oteizaren eskultura, Arestiren etxea. Hor kokatzen dugu bi euskal artista handien arteko elkarriketa, eztabaida. Harri landua batek, hutsune betea bestek.
- Nola interpretatu behar ditugu bata zein bestea?
- Jakin behar dugu Jorge Oteiza garai batean bilbotar izan genuela, gure botxoan ereiten saiatu zela, garai ilunetan, euskal artea berpizten modu kolektiboan. Bilboren bihotz honetan betirako landatu zigun *Esferaren hustuketaren aldaera oboidea* erraldoi hau interpretatu ahal izateko, maisuaren ibilbideari begirada eman behar zaio.
- Lagunarteko eztabaida bizian ikusten ditugu, gure aurrean, Gabriel Aresti eta Jorge Oteiza, hain pareko, hain desberdin, hain gureak biak.

Nire poesia oso merkea da

herriaren ahotik
hartu nuen debalde,
eta debalde ematen diot
herriaren belarriari.

Nik ere badut nire egia
eta bankero jaunarenak
bezainbat edo baino gehiago
balio du.

Munduko gauza guztiak gastatzen dira:
gastatzen da osasuna, maitasuna, deshea...

bizioa, gutizia, bizia,
eta erresen gastatzen da
munduko gauzarik iraunkorrena,
gogorrena,
dirua.

Inork badio: nire etxean eztago bakerik
bila beza bakea auzoko etxean
edo munduko basterrik azkenean
baina etxean bakea balu,
eztezala gerrarik inun bila.
bakea eta etxea galdoko baitu
munduko bazterretan.

- 1. Ibaizabal behera abiatuko gara,** itsasorako bidean, eta
Gabriel Aresti bera entzungo dugu **Hibai Zabal** poema deklamatzuz:

HIBAI ZABAL

Hibaiek

**erabaki bat harcen dute: Hemendik. Eta handik
ez dira mugituko.**

**Edo handik
mugitzen dira**

geldi,

**edo noizean behin, hasarraturik, azkar,
ixasora.**

**Ni ixaso bat banenduka, nora noan banenki,
hibaia**

baninz...

Ai, ene tristea!

Nora eta nundik

noan

ez dakidana...!

- **Ingelesen landako kaiaren parean, Arrupe eta Salbe** zubien tartean, Guggenheim museoa aurrean dugula, Bilbo berrituaren gune sinbolikoa aztertuz.

- **INGELESEN LANDAKO KAIA, ABANDOIBARRAN:**

Orain hemen gaude, Bilbo berritu honen gunean, Guggenheim aurrez aurre dugula. Bilboren itxura, paisaia, urbanismoa erabat aldatu dira azken hogeitahogei hamar urteotan. Bilbotarren nortasuna, berriz? Lortu du Bilbok frankismoaren nortasun inposatu arrotz itogarri hartatik guttiz libratzea? Berreskuratu du zerbait aurreko izaera tradizionaletik? Ala aldatu da erabat nortasunaz, itxura aldatu duen neurri berean?

- Galdera pisudunak dira hauek guztiak. Gauza asko gertatu dira Bilbon Franco hura 1975an hil zenetik. Aste Nagusia birsortu zen 1978an, urte bete geroago udal hauteskundeak izan ziren; 1980an abiatu zen lehen Korrika; 1983.eko abuztuan, uholde erraldoi batek eraman zituen aurretik ondasun eta itxaropen ugari.
- Hori guztia ez nahikoa, eta urte batzuk lehenagotik ere iragarria zegoen Bilbo Handira ekonomia eta gizarte krisi larria abailduko zela. Ordura arteko bizimoduaren euskarri zen industria astuna gainbeheran zetorren.
- Ezinbestean behar zuen berrikuntza sakona Bilbok, gertatuaren ondoren. 1992an sortu zen **“Bilbao Ria 2000”** erakundea, Bilboren berrikuntzarako plangintza estrategikoa prestatu eta garatzea helburu zuena. Ikusgarria izan da, ordutik gaur arte, Bilbok ezagutu duen eraberritzea, diseinuaren ardura oso agerian duena.
- Goian galdetzen genuen ea Berreskuratu duen zerbait aurreko izaera tradizionaletik, ala aldatu egin den erabat nortasunaz, itxura aldatu duen neurri berean. Bada, Bilboren berrikuntza horretan izan da diseinuaren eta eliteko hiria bihurtzearen ardura. Horrela egin dira **Metro berria 1995. urtean** irekia eta **Norman Foster** arkitektoari eta **Otl Aicher** diseinatzaileari enkargatua; **Loiuko aireportua**, **Santiago Calatrava** arkitektoak diseinatua; **Bilboko tranbia**, 2002an irekia. Bestelakoetan, **Guggenheim Bilbao museoa**, **Frank Gehry** arkitekto

kanadarraren diseinu bereziaz, **1997an** ireki zen. Urte berekoa da **Zubizuri**, eta 1999koa, berriz, **Euskalduna Jauregia**. XXI. mende berriarekin sortu ziren, besteak beste, **Isozaki Atea**, **Alondegia** berritua, **Deustuko zein EHUko unibertsitateen Biblioteka eta Aretoa Abandoibarran**, eta **Euskadi plaza** zein bertako eraikuntza guztiz bereziak.

- Une honetan bertan ari dira aldatzen ere Bilboko Arte Ederren Museoa, eta badira kritikak burutzen ari diren aldatetaz. Bada, Gabriel Arestik bere garaian poema oso esanguratsua eskaini zion Arte Ederren Museo horri:

“SOUVENIR D'ÉSPAGNE POUR MESDEMOISELLES

SOLANJE ET HELENA GEREZIAGA”

Hau da Bilbo,

esan zuen gizonak.

Kapela zuria zeraman gizonak, eta

Hau da Bilbo, esan zuen.

Hau da Pinturaren Museoa, esan zenuten.

Peut-être, esan nuen,

Eztakit.

Eznenkien. Ta zer?

Eznaiz lotsatzen.

Zergatik burjesa egonen da

museo honetan izenez, laudorioz,

(Halako konteak eman zuen pintura hau),

pilotuaren eta marineruaren izenak

hilobi baten gainean eztaudenean?

Zer da hori? Seinalatu zenuten leihotik.

Deustuko Eskola. Jesuitena.

Ez, hangoa. Egurrezko etxe haek.

Ijitoak, esan nuen lotsaturik.

Hurrutian entzuten zen trumoa.

Grekoa. Goia.

2. Ibaian behera, Euskalduna ontziola zegoen gunean izandako aldaketak, baita Bilbon sortu berri den irla ikusi eta jarraian Zorrotzako portuaren gunea arakatuko dugu.

• ZORROTZAKO PORTUAN:

Gabriel Arestik lortu du bere lehen lanpostua Zorrotzako portuan, eta honek dakarkio herri langilearen partaide bihurtzea. Migrazio urteak dira, eta Bilbo eta inguruko herrietan populazioa goraka doa etengabe. Klase borroka eta asimilazio linguistiko eta kulturala era gordinean agertzen dira frankismoan. Gabriel Arestik herri langilearekin konpromiso estua agertzen du, eta klaserik gabeko gizarte euskalduna da bere aldarria.

- Hogeita bi urte zituen Gabriel Arestik bere **lehen lanpostua** eskuratu zuenean. **1956.** urteko otsailaren lehenean hasi zen lanean **Compañía Vasco-Africana** izeneko enpresan, **Zorrotzako portuan.**
- Bertan eskaini zioten lanpostua administrazio-ofizial moduan, eta bere funtzio zehatza, Afrikatik itsasontziz portura heltzen ziren zuhaitz tropikalen enbor kargamentuak kontrolatu eta zur ekoizpena bideratzea zen.
- Aipagarria da enbor horien jatorria Gineako kolonia espainiarra zela, eta Compañía Vasco-Africana enpresa hau, Estatu espainiarretik zuzenean esplotazio-baimena lortu, eta 1932. urtetik ari zela Ginea bertako baso ugarien ustiaketa koloniala burutzen. Hain zuzen ere, frankismoa nagusitu zenetik eta gerraondoko lehen bi hamarkadetan, bai autarkia ekonomikoak bai Bilbon bertan eta zenbait hiritan orduan ezagutu zen hazkunde demografikoak, etxegintzarako zuraren demanda gehitu zutela, eta agintari frankistek urgentziaz areagotu zuten Gineako basoen ustiaketa, Armadari berari Gineako lurralde kolonialaren basoen mapa berri zehaztuak aginduz. Horrela hazi ziren inportazioak eta garatu ziren arloko enpresak, langile berriak kontratatuz, Aresti bera tartean.
- Izan ere, garai haietan ezagutu zen hazkunde demografiko aurrekaririk gabea Bizkaian eta zehatzago Bilbon eta inguruan, autarkiaren ondoren berpiztu zen industriaren garapen arinaren ondorioz. 1950. urtetik 1975era doazen hogeita bost urteetan, ia bikoiztu egin zen Bizkaiko populazioa, 650.000 biztanle inguru izatetik milioi eta ehun milara helduz.
- Bertoko populazioari gehitu zitzaion, oso modu azkarrean eta denbora bitarte laburrean, jatorri desberdineko etorkinen

etorrera; alde batetik, nekazaritza inguruetatik hirietara zetozen euskaldunak, lantegietara eta hauen inguruan bizitzera; bestetik, **Gaztela, Galizia, Extremadura** edota **Andaluziako** hainbat herri txikitatik Bilbora eta inguruetara lan bila heldu ziren milaka langile eta familia osoak, bizitza berri baten bila. Bilbo inguruetan, egun batetik bestera auzo osoak sortu edo handitu ziren, **Otxarkoagan, Abusun, Errekaldeberrin** edo **Txurdinagan**, eta

- lantegi handietatik hurbilago, **Basaurin, Etxebarrin, Erandion, Barakaldon** edota **Sestaon** etorkin heldu berrien bizitokiak ugaltu ziren modu ikusgarria
 - Herri langilea, jatorri eta kondizio desberdinekoa baina lan harremanez elkartua, oso presente egin zen i hiriotako auzo-kaleetan. Horrela aurkitu zuen Gabriel Arestik bere lehen lanpostuan, eta horrela agertu poema
-
- Bertan, **Zorrotzako portuan aldarrika poema** aurkeztuz, Anton eta Gilen Gabrielekin elkartzen diren unean
 - **ZORROTZAKO PORTUAN ALDARRIKA:**
*Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan.
Zimentua dakar, ehun kiloko sakoetan.
Bien bitartean
Anton eta Gilen zeuden
Zerrarekin...
tronko hura erdibitzen.
Sokarekin...
Eztago kablerik...
Bestela...
Tira eta tira,
orain Anton,
gero Gilen,
eznaiz hilen,
Gilen.*
-
- *Hemen euskeraz
ta han erderaz.
Birao egiten zuten.
Okerbideak ezpaitaki
mintzaerarik,
berdin tratatzen baitu*

*erdalduna
eta
euskalduna.*

*Arbolaren neurriak hartu nituen.
Antiojuak bustitzen zitzaizkidan.
(Amak gauean pentsatu zuen errekar
erori nintzela).
Eta esan nuen:
Beti paratuko naiz
gizonaren alde.
Gilen.
Anton.*

3. BILBOREN BIZKARREZURRA IBAIZABAL DA:

Itsadarrean nabigatzen ari gara, Bilbotik itsasoraino, **Ibaizabalen. Hauxe da, hain zuzen ere, Bilboren bizkarrezurra. Ibaizabali esker sortu zen Bilbo.*

**Bilboren sorreraren eta garapenaren historia azaldu, ibaian behera goazen bitartean.*

Nondik hasi, baina? Ardatzetik. Eta zein du Bilbok ardatz:

*** ibaia**, zalantzarik gabe. Ibaiak egin du Bilbo. Lehen garaietatik, Ibaizabal izan da bizkarrezurra. Ibaiertzeraino hurbildu ziren lehenengo bilbotarrak, ur bila, arrain bila, nabigazio bideak zabaltzera... **Ibaizabal** bazterrean egin zituzten lehen etxetxoak, seguruenik gaurko Bilbo Zaharraren lurretan. Geroago, Ibaizabalek eman zien itsasorako bidea, eta bertatik hasi zen trukea, joan-etorria, merkantzien garraioa...

Itsasotik ibaian gora, Bilboko lehenengo zubi ondoan, lehenengo portuan, lehenengo plazan hasi zen ernatzen Bilbo hiria. Inguru hartan etxeak, kaleak, harresiak...

Ibaia Bilboren bizkarrezur, eta herritarren barru- barruan sartu den erreferentzia paisaia urbanoan.

* ZUBIAK:

Ibaia baldin bada Bilboren bizkarrezurra, aitortu beharko dugu Ibaizabalen gaineko **zubiak** direla *saihetsak*. Onartzen badugu irudi hau, harriduraz ikusiko dugu zein izan den Bilboren hezur-mamitzea historian zehar. Izan ere, zubi bakarra izan zen, ibaiarekin batera, giltzarri Bilboren sorkuntzan, San Antoneko zubi zaharra.

Bada, Bilbo zabaltzen eta hazten joan den neurrian, zubiak eta zubiak gehitu zaizkio ibai gainean, eta gaur egun Bilbok hamasei zubi ditu. Goitik behera hasita, itsasorako bidean dira gaur: **Boketeko zubia** Basauri ondoan, **Santa Isabel** eta **Ibaieder** zubiak Abusun, **Miraflores zubibidea**, **San Antonekoa** bera, **San Frantziskokoa**, **Mesedetakoa** eta **Areatzako zubia**; ondoren **Udaletxekoa**, **Zubi Zuri**, **Salbekoa** eta **Arrupe** zubi berria, **Deustukoa** eta **Euskaldunakoa**, eta **Zorrotzaurreko** irla berrian, **Frank Gehry zubia** eta **Arraunlariena**.

Beste bi zubi erraldoi daude oraindik Bilbotik Abraraino, **Arrontegikoa** eta **Bizkaia zubia** Portugalete eta Areta artean. Eta oraindik beste 5 gehitu beharko genizkioke zerrendari Kadagua ibaiadarrean, Bilboren mugetan.

Aresti gaztearen garaian zubiak ez ziren horrenbeste, eta horrela mintzatu zen gure poeta hitzaldi batean:

“Horregatik gustacen zait Bilbao, gauzak argi eta garbi ikusten dira, ezer disimulatu gabe, bai, pobretasuna ezkerretara eta aberxatasuna eskubitara”.

Izan ere, bai fabrikak bai langile familien etxeak ibai ezkerrean kokatu ziren, eta fabriketako jabeen eta dirudunen etxe eta txaletak, aldiz, Negurin eta ibaiaren eskuinaldean. Baina itsasadarraren gainean geroztik altxatu diren zubi ugariak laburtu egin dute, zalantzarik gabe, alderdi bien arteko distantzia geografikoa. Distantzia soziala ere bai? Ez dago horren argi, ikusi dugunez.

*BILBOKO PORTUAK:

Portua da, Ibaizabalen eta San Antoneko zubiaren ondoren, Bilboren hirugarren fundatze-osagaia. Izatez, **Bilboko lehen portua** Bilboren beraren fundatze ofiziala baino lehenagokoa da, 1300eko fundatze-gutunean aipatu egiten baita portuaren existentzia bera fundazioaren motibo bezala. Hain da garrantzitsua portua Ibaizabalen, hegoaldeetik datozen merkantziak ontziratu eta itsasoratzeko bidean.

Hasierako portuak laster sortzen ditu errezeloak inguruetakoz elizateen artean, eta 1804. urtean, **Zamakola** diputatuak, Madrileko gortearen laguntzaz, Albian portu alternatiboa sortzeko proiektua aurkeztu zuen, Bakearen portua izenaz. **Zamakoladako matxinadak** itxi zion bidea proiektuari.

Bilbon aldaketak eta hiriaren hazkundera gertatzen diren neurri berean, portua ere handiagoa, zabalagoa eta hondo sakonagokoa behar denez, behin eta berriro aldatzen zaio kokapena, **San Anton** ingurutik **Areatzaraino**, gero **Erripa**, gero **Zorrotza**.

Ibai ezkerrean zabaltzen diren siderurgia fabrika erraldoiek behar dituzte aldamenean karga-kai handiak, eta modu horretan itsasorantz mugitzen da etengabe portuaren kokapena. 1877. urtean **Evaristo Txurruka** ingeniariak hartu zuen bere kargu portu berria **Abraren kanpoaldean** egitea, eta 1902. urtean, mende berriarekin, ireki zen Bilboko **Kanpo Portua**, gerora, 1985ean, **Superportua** bihurtu zena. Azken horren ondorioz, libre gelditu ziren Bilbon, hiri barruan, oraindik mantentzen ziren kaiak eta portu ondorenak, eta libratutako lurretan gauzatu zen Bilbo metropoli berrituaren hiri proiektua, **Abandoibarra** eta inguruetan. Bilboren paisaia eta habitat aldaketa sakonak.

4. ABRA. GETXO, NEGURI ESKUINEAN, PORTUGALETE, SANTURTZI, MUSKIZ, ABANTO-ZIERBENA EZKERRETARA:

- **BIGARREN KARLISTALDIAREN** ondorengo aldaketak: meatzetan, industrian, gizartean.

- Bizkaiko Zubia
- Ibaiaren alde bietara: Ibaiekerra, eskuinaldea: Neguri
- Portuaren bilakaera. Industrialdearen ondorengoa: superportua, Petronor...
- Turismoaren dimentsio berria: trasatlantikoak, kirol eta turismo portua...

5.- ABRATIK BILBORA ITZULERA:

“Eta debalde ematen diot herriaren belarriari”: Gabriel ARESTIren poemak kantu bihurtu:

Gora eta Gora beti

Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi!
 Euskarak bizi gaitu eta bizi bedi.
 Gorantza doa agudo kapitala
 eta Lapurdi beti dago apala,
 aldrebesturik dago mundu zitala,
 konformatzen ez bagara ze pekatu mortala!

Gurea ez da bizi-modu normala
 lurra lantzeko aitzurra eta pala,
 lanaren truke kobratzen erreala.
 Benetan da miserable euskaldunon jornala.

Munduan ezin bizi daiteke hala,
 merkatuetan dena gora doala,
 etxera eta zopa guztiz argala,
 kriseiluen oiloa ez da postre formala.
 Obrero eta nekazari leiala,
 zuena ez da errenta liberala.
 Diru zikinak putre motzak bezala
 botatzen dizu gainera hortxe bere itzala.

Jabeek dute kontzientzia zabala,
kaskatu dute gure lurren azala,
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala;
borroka garbian dago hori da printzipala.

Egun da Santi Mamina

Egun da Santi Mamina
benetan egun samina.
Goiko zeruan gorde dezala
luzaro neure arima (errepika)
Esanen dizut egia
hau ez da usategia;
erroi artean izan nintzaden
benetan ausartegia.
Itsas aldean izarra,
hari begira lizarra.
euskera salbo ikusi arte
eztut kenduko bizarra.
Kantatu zuen oilarrak,
argitzen dira belarrak
Ageda gure martiriari
moztu zizkaten bularrak.

Bularrak moztu zizkaten eta
Euskalerrriak diotsa.
Solomo luze dultzerik gabe
eman zaidazu bihotza.
Eman zaidazu bihotza eta
ken berriz nahigabeak.
Esan noiz garen izanen gure
etorkizunen jabeak.

*****.

Bizkaiko aberatsak

Bizkaiko aberatsak dira diruzale,
txerri-erosle eta txorizo-saltzaile.
Dendaz bete dituzte Bilbon zazpi kale,
inoiz ez dute eman pausorik debalde,
burrukatzen baitute diruaren alde.

Arratiko gizona Bilbora doa maiz
Lemoako tranbian eta beti garaiz
bere artean dio umore txit alaiz
traje berri batekin gaur bestituko naiz
lehengo arlotea jantziko da galaiz.
Hura ikusi eta dendari guztiak
zaharrak geldi eta korrikan gaztiak
saldu nahi dizkiote makailu bustiak
gauerdiko izarrak eta eguzkiak
inor engainatzeko nolako trastiak.

Somera, Artekale, gero Tenderia,
han ikusi genuen mila komeria.
Tenderoaren grinak nork erremedia!
Gizonaren gainean han erori dira,
hanka kendu diote, ai, zer aberia!
Koituaren moduan joan da ihesi
hanka bakar batekin baliteke bizi.
Mundu honetan ez da batere justizi
zazpi kaleetan nahi traje bat erosi
eta oinetakoa bertan behar utzi.

Euskal baserritarrak dadukan pobreza,
baino haundiagoa askoren grandeza.
Madrildik etorri den Korte Ingelesa,
bertan sartuko balitz euskaldun baldresa,
dirua gastatzeko manera erreza.

Ez zaitez bertan sartu, euskaldun maitia,
zabalik badaukazu bertako atia,
galduko duzu eta bigarren hankia
bai eta, bide batez, zure hankarte.
Euskaldun batentzako zer errematia!

Guk euskaraz, zuk zergatik ez?

Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Euskara putzu sakon
eta ilun bat zen. (bis)
Eta zuek denok ur gazi bat atera zenuten
handik nekez. (bis)
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Orain zuen birtutez zuen indarrez. (bis)
Euskara itsaso urdin eta zabal bat izanen da
eta guria da. (bis)
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Euskara putzu sakon
eta ilun bat zen. (bis)
Eta zuek denok ur gazi bat atera zenuten
handik nekez. (bis)
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?
Guk euskaraz, zuk zergatik ez?

6.- NIRE AITAREN ETXEA

Jatorriko puntura itzuli gara. Hor aurrean daukagu Gabriel Arestiren aitaren etxea.

Gabriel Arestiren etxea. Aitaren etxe eragotzi hau debekatua, lapurtua. Arestiren ibilaldi bilbotarra hasi zenean, Bilboren egoera ez zen batere gozoa: **Deustu lokartua, Neguri aberetua. "Hau ez da Euzkadi- zioen orduan Arestik- hau Gaztela da".**

Baina Gabriel Arestik **mandatua** hartu du bere kargu: **mailu bihurtu du bere poesia eta indar guztiz jo du herri lokartua itzartzeko kolpea.**

Harria, euskal harria landu du, **itoginaren** azpitik kendu. **Ogia** eta **euskara** eman nahi dizkio Bilbori, bilbotar guztiei, **Anton eta Gilen**

modukoei. Baina nola adiskidetu **ura eta sua...** Mailua beharko batzuetan, besteetan **biola batekin..**

Nire aitaren etxea

defendituko dut.

Otsoen kontra,

sikatearen kontra,

lukurreriaren kontra,

justiziaren kontra,

defenditu

eginen dut

nire aitaren etxea.

Galduko ditut

aziendak,

soloak,

pinudiak;

galduko ditut

korrituak,

errentak

interesak,

baina nire aitaren etxea

defendituko dut.

Harmak kenduko dizkidate,

eta eskuarekin defendituko dut

nire aitaren etxea;

eskuak ebakiko dizkidate,

eta besoarekin defendituko dut

nire aitaren etxea;

besorik gabe,

sorbaldarik gabe,

bularrik gabe

utziko naute,

eta arimarekin

defendituko dut

nire aitaren etxea.

Ni hilen naiz,

nire arima galduko da,

nire askazia galduko da,

baina nire aitaren etxeak

iraunen du

zutik.



EUSKALTZALEEN BILTZARRA

